

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

5802

AGINDUA, 2017ko azaroaren 13koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinen bidez erabaki baita Zallako Mimetiz herriguneari zabaltzea Birgaitze Integratuko Areetarako oro har finkatuta dagoen finantzaketa kualifikatua.

AURREKARIAK

1.– Zallako Udalak idatzi bat bidali zuen Birgaitze Integratuko Areetarako zehaztuta dauden diru-laguntzak eskatzeko, Mimetizko herriguneari. Idazkiarekin batera, hauek bidali zituen: eremuaren mugaketa-planoa, deskribapen eta justifikazio memoria, gizarte eta hirigintza azterlana, ekonomia eta finantza azterlana eta jarduketara programa.

2.– Eremu horren jardute-esparruaren mugaketa honako hauetan oinarritzen da: espedientean jasotzen diren agirietan, udalak aurkeztutako mugaketa planoan, udalerriko Plan Orokorrean eta organo honetara atxikitako langileriak egindako inguruaren begizko ikuskapenean. Mugaketa Agindu honi atxikitzen zaion planoan zehazten da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila da espediente hau ebazteko organo eskuduna, apirilaren 11ko 77/2017 Dekretuan, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenean, eta abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketara babestuei buruzkoan, xedatutakoaren arabera.

2.– Aipatutako abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren arabera, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak horretarako emandako agindu bidez eta Lurzoru eta Hirigintza Zuzendaritzaren alde aurreko txostenaren ondoren, Birgaitze Integratuko Areetarako finkatuta dauden diru-laguntzak eman ahal izango dizkie aipatutako dekretuaren 9.2 artikuluan definitutako eremuei, salbu area horiek kudeatu eta burutzeko Birgaitze Plan Berezia idatzi behar denean.

3.– Kasu honetan bete egiten dira 317/2002 Dekretuaren 9.2 artikuluan finkatutako baldintzak, hau da, degradazio ekonomiko-soziala eta urbanistiko-arkitektonikoa. Ondorioz, Area Degradatutzat hartu da Zallako Mimetiz herrigunea, 2017ko urriaren 25ean emandako txostenaren arabera. Txostena espedientean dago.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Baimentzea, ondare eraikiari dagokionez, abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan ezarritako Birgaitze Integratuko Areetarako diru-laguntzak ematea Zallako Mimetiz herriguneari burutuko diren babespeko birgaitze jarduketei.

Bigarrena.– Agindu honen berri ematea Zallako Udalari eta dagokion Lurralde Historikoko Foru Aldundiari.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta dagokion Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

2017ko azaroaren 30a, osteguna

Laugarrena.— Agindu honen aurka, berraztertzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuari, hau jakinarazi eta biharamunetik hasi eta hilabeteko epearen barruan edo, bestela, administrazioarekiko auzierrekurtoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian bi hilabeteko epean, jakinarazpena jasotzen denetik hasita, eraginik izan gabe denen jakintzarako argitaratu izanak.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko azaroaren 13a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

2017ko azaroaren 30a, osteguna

I. ERANSKINA



MIMETIZ

ZALLA

MIMETIZ

EREMUAREN MUGA

LÍMITE DEL ÁREA